

Hezkuntzako eta Kulturako kontseilariak apirilaren 25ean emandako 161/2001 Foru Agindua aldatzeko FORU AGINDUAREN PROIEKTUAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA JUSTIFIKATZEKO TXOSTENA. 161/2001 Foru Aginduaren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen lanbide prestakuntza eta hobekuntza GARATZEN DIRA A mailako edo taldeko irakaskuntza lanpostuetan.

Hezkuntzako kontseilariaren apirilaren 25eko 161/2001 Foru Agindua onetsi zenetik denbora luzea igaro denez, beharrezkoa da berrikustea zein den elkarrekotasuna irakaskuntza espezialitateen eta prestakuntzarako zerbitzu berezietako egoera ekar dezaketen titulazioen artean.

Horregatik eta estatuko araudian egindako aldaketengatik, I., II. eta III. eranskinak ez dituzte barnean hartzen espezialitate guztiak, ezta, horren ondorioz, honetarako behar diren titulazio akademikoak ere: Hezkuntza Departamentura atxikitako B maila edo taldeko irakasle finkoak A maila edo taldeko irakaskuntza lanpostuetan sartzea prestakuntzarako zerbitzu berezietako egoeraren bidez, Bigarren Hezkuntzako, Musikako eta Arte Eszenikoetako eta Arte Plastiko eta Diseinuko irakasleen kidegoetako lanpostuetan, hain zuzen.

Eguneratzeko behar horri erantzunez, proposatzen da zati batean aldatzea Hezkuntzako kontseilariaren apirilaren 25eko 161/2001 Foru Agindua, haren I., II. eta III. eranskinak berrikusteko, Bigarren Hezkuntzako prestakuntza espezialitate berriak kontuan hartuta.

Irakasleen kidegoetan sartzeko baldintzak egungo hezkuntza sistemara egokitzeko beharra jada ezarri da irakasleak aldi baterako kontratatzeko arauetan, Hezkuntzako kontseilariaren apirilaren 8ko 37/2020 Foru Aginduaren bidez; haren I. eranskinan ezarri dira irakasleen kidegoetan eskatzen diren espezialitateak eta titulazioak. Berriki egindako garapen horrek aukera ematen du 161/2001 Foru Aginduaren I., II. eta III.

eranskinak kentzeko eta 37/2020 Foru Aginduaren egungo I. eranskinera zuzeneko igorpena egiteko, A mailako edo taldeko irakasleen kidegoei dagokienez. Horrela, parekatu egiten dira irakaskuntzako lanpostu bererako titulazio akademikoa eskuratzeko baldintzak, bai aldi baterako langileentzat, bai langile finkoentzat, prestakuntzarako zerbitzu berezien bidez.

Gainera, I. eranskinarekin lotzeko proposamen horrek arinduko ditu 161/2001 Foru Aginduko espezialitateen eta titulazioen etorkizuneko eguneratzeak, adierazten baitu horiek gauzatuko direla kidego eta espezialitate berean aldi baterako kontrataziorako aurreikusitako titulazio-eskakizunen arabera.

Iruñean, 2021eko urriaren 13an

Javier Lacarra Albizu